



## A – 2. PROA PLANA: Eskola-laguntza Programa

### *Deialdiaren xedea*

Deialdiak bi helburu ditu:

- Ikasturte honetan programan parte hartu duten Lehen Hezkuntzako 50 ikastetxeen eta Bigarren Hezkuntzako 30 ikastetxeen partaidetza berritzea 2010-2011 ikasturterako, jarraitzeko asmoa izan eta eskaera egin badute, baldin eta memoriaren balioespen positiboa egin bada.

- 2010-2011 ikasturtean programa zabaltzea. Horretarako, Lehen Hezkuntzako 15 ikastetxe berri eta Bigarren Hezkuntzako 10 ikastetxe berri hautatuko dira.

### *Deialdiaren helburua*

Eskola-laguntza Programaren helburua da eskolako arrakasta-indizeak hobetzea, eta horretarako hainbat jarduera gauzatzea, esate baterako:

- Batez ere ingurune fisiko eta estimulu egokirik ez duten ikasleei laguntza eta baliabideak eskura jartzea, eta denbora osagarria eskaintzea eskola-porrotari aurre egiteko edo aurrea hartzeko.

- Oinarrizko gaitasunen garapena hobetzea, batik bat irakurketarekin, ikasgai instrumentalekin, lanaren antolaketarekin eta ikas-ohiturak hartzearekin zerikusia dutenak.

- Ikasleek haien ahalmenez dituzten itxaropenak hobetzea, eta ikastetxeek haien ikasleez dituztenak ere bai. Familien eta ikastetxearen arteko harremanak hobetzea.

### *Proiektuen ezaugarriak*

Programa honekin zerikusia duten jarduera guztiek egon behar dute ikastetxeak aniztasunari erantzutearren antolatu duen jarduera orokorraren barruan.

Laguntza-programa astero gauzatuko da, bost orduz: lau ordu ikasleei arreta zuzena emateko, eta ordubete jarraipenerako eta ikastetxeko irakasleekin koordinatzeko.

Laguntza-programa monitoreen bidez gauzatuko da. Ahal izanez gero, monitore horiek ikasle ohiak, unibertsitateko ikasleak eta abar izango dira, ikastetxearen konfiantza dutenak, ikasleekin harreman errazagoak izango dituztenak eta irakasleentzako informazio-iturri bikainak izango direnak. Gainera, abagune egokia da ikasleek interakzio anitzagoak izateko, eskolako errutinak apurtzeko eta abar.

Salbuespen gisa, eta aurkeztutako proiektuak justifikatzen badu, orduak eska daitezke, ikastetxeko irakasleak elkarren arteko koordinazioan aritu daitezzen.

Laguntza-funtzioa ez datza ohiko irakaslearen ordezkotzat, ezta haren irakaspenak edo funtzioak bikoiztean. Aitzitik, helburua da ikasleei banakako eta taldeko laguntza ematea, hainbat arazo bidera ditzan eskolako lanak egiten ari denean. Hortaz, ikasleei laguntza ematen zaie helburu hauek aintzat hartuta:

- Ikasleak eskolako martxa har dezala, eta hurrengo egunetan ikusiko dituzten zenbait eduki ere presta ditzala.
- Ikasketa instrumentaletan hobeto ibili dadila.
- Eskolako lana planifikatu eta ordenatu dezala, eta ikasteko ohitura eta teknika eraginkorrak finka ditzala.
- Eskola-inguruan izan ditzakeen gatazkak egoki bidera ditzala.

Laguntza hori ikas-giro kolektibo batean eman behar da, eta giro horrek berdinen arteko laguntza sustatu behar du, irakasleen eta proiektuan inplikaturako pertsona guztien arteko koordinazio estuaren bidez.

### ***Esleipena***

Jarduera hori gauzatzearren, ikastetxeari esleituko zaio proposaturako modalitatearen araberrako diru-kopurua, programa bideratzeko. Programari denbora emango dion irakaslerik badago, hark egindako orduak irakaskuntza-ordutzat hartuko dira.

### ***Berariazko baldintzak***

Eskabidea onartzeko, jarraibide honetan zehaztutako baldintza orokorrak betetzeaz gain, berariazko eskakizun hauek ere bete behar dira:

a) Programan parte hartuko dute Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek eta Derrigorrezko Bigarren hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleek.

b) Talde bakoitzak 12 ikasle izango ditu gehienez. Gizarte-desabantailan egoteagatik zailtasunak dituzten ikasleei edo eskolan atzeratuta daudenei lehentasuna emango zaie. Hala ere, interakzio-testuinguru heterogeneoetan ematen den ikasketa aberatsa aintzat hartuta, eta betiere lehentasunak errespetatuz, eskola-errendimendu ona duten ikasleek ere parte har dezakete taldeetan. Ikasturtean zehar ikasle gehiago sar daitezke taldean, beteta ez badaude.

c) 2009-2010 ikasturtean onartutako proiekturik ez duten ikastetxeek berariaz zehaztu behar dituzte, III. eranskinean (PROPOSATUTAKO HEZKUNTZA-EKINTZAREN SINTEsia), hezkuntza-jarduerari buruzko alderdiak, arduradunak, koordinazioa, familiekiko harremanak, beste erakundeekiko harremanak eta abar, laburbilduta.

d) 2009-2010 ikasturtean onartutako proiektua duten ikastetxeek ikasturte honetan gauzaturako proiektuaren memoria aurkeztu behar dute, hobetzeko proposamenekin batera.

e) Jarduerak 2010eko urriaren 1ean hasi behar du, eta 2011ko maiatzaren 31n bukatu.

### ***Aukeratzaren diren ikastetxeen berariazko betebeharrak***

a) Programak ikastetxearen funtzionamenduan erabat integratuta egon behar du. Horretarako:

- Zuzendaria izango da programaren arduraduna.
- Aholkularia (Lehen Hezkuntzako ikastetxetan), orientatzailea (Bigarren Hezkuntzako ikastetxetan), DBHko koordinatzailea edo ikasketa-burua izango da programaren koordinatzailea eta proiektuari loturiko ekintzen ardura hartuko du. Koordinatzailearen funtzioak hauek izango dira, oro har:
  - Jarraibideak ezartzea, tutoreekin batera, eta monitoreek edo laguntzaz arduratzen diren irakasleek emango duten tratua koherentzia bermatzea.
  - Tutoreen eta monitoreen arteko bitarteko izatea.
  - Familiekiko koordinazioa eta haien inplikazioa bermatzea.
  - Programaren funtzionamenduaren ardura zuzena hartzea, nahiz eta zuzendaritza-taldea izan arduradun nagusia.
  - Programa koordinatzeko ezarritako jardueretan parte hartzea.

b) Ikastetxeek, aukeratuak izan ostean, eskuratu behar dute programan parte hartuko duten ikasleen familiakoen idatzizko baimena. Halaber, urriaren 30a baino lehen, A-2.3. eranskina behar bezala beteta bidali behar dute Lurraldeko Ordezkaritzara.

### Baremoa

1. Proiektuaren balioespena, eta deialdian zehaztutako helburu eta irizpideekin bat etortzea: **20 puntu, gehienez ere.**

Proiektu bat hautatzeko, 12 puntu izan behar ditu gutxienez.

2. Proiektuan parte hartzen duten eragileen arteko eta familiekiko koordinazio-maila: **10 puntu, gehienez ere.**

3. Proiektuan parte hartzen duten ikasleen tipologia, inguru gutxietsitakoak izatea aintzat hartuta.

Ikasle bekadunen portzentajea (P)

$P < 5$	0 puntu
$5 \leq P < 15$	1 puntu
$15 \leq P < 30$	2 puntu
$30 \leq P < 50$	4 puntu
$50 \leq P < 70$	6 puntu
$70 \leq P < 80$	8 puntu
$80 \leq P < 90$	10 puntu
$90 \leq P$	12 puntu

Ikasle etorkinen portzentajea (P)

$P < 5$	0 puntu
$5 \leq P < 20$	1 puntu
$20 \leq P < 50$	2 puntu
$50 \leq P < 70$	3 puntu
$70 \leq P$	4 puntu

Gutxiengo etnikoetako ikasleen portzentajea (P)

$P < 5$	0 puntu
$5 \leq P < 20$	1 puntu
$20 \leq P < 50$	2 puntu
$50 \leq P < 70$	3 puntu
$70 \leq P$	4 puntu

4. DBHko 1. eta 2. mailan matrikulatutako ikasleen ratioa.

Ratioa > 20 ikasle: 5 puntu

### Berariazko ebaluazioa

Laguntza Programako proiektuek behar bezala aurrera egin dezaten, ebaluazio-prozesu hau egingo da:

- Kanpo-ebaluazioa, Hezkuntza Sailak ikasturtearen amaieran bidaliko duen galdera-sorta baten bidez egingo dena.

- Barne-ebaluazioa, proiektuaren memorian jasoko dena. Barne-ebaluazio horretan ikasleen eskola-emaizak kontuan hartuko dira, baita tutoreek eta irakasle-taldeek ikasleen aurrerapenaz betetako galdera-sortak ere. Halaber, familiek programaz duten iritzia ere jasoko da, baita ikasleen bilakaeraz duten irudipena ere.

Ebaluazio horietan aintzat hartuko diren adierazleak:

- Parte hartzen duten ikasleek ikasgai gehiago gaintitzea.
- Jarrera hobea, bai ohiko ikasgelan, bai irakasleekiko eta ikaskideekiko harremanetan.
- Eskolara gehiagotan joatea (bertaratze-indizea hobetzea).
- Programako saioretako bertaratze-indizea.



- Ikasleak etxeko-lanak eginda eramaten dituzten eskolen portzentajea.
- Ikasleen autoestimua-maila eta norberaren buruarekiko konfiantza.
- Ikasleen gogobetetzea monitoreekin eta haiek proposatutako jarduerekin.
- Monitorean koordinazio-maila irakasle tutoreekin eta gainerako irakasleekin.
- Programaren integrazio-maila ikastetxearen jarduera orokorrean.
- Familien koordinazio-, inplikazio- eta gogobetetze-maila.

Zonako Berritzeguneak, ikastetxeak aurkeztutako memoria eta jarraipen- eta aholkularitza-lanetan eskuratu duen informazioa ikusita, balioespen-txostena egingo du, proiektuaren jarraipena erabakitzeko erabakigarria izango dena.



## A – 2: 1. ERANSKINA

### ESKOLA-LAGUNTZA PROGRAMARAKO ESKABIDEA

Ikastetxea: ..... Kodea: .....

Udalerrria: ..... Lurraldea: .....

Lehen Hezkuntzako 5. mailako edo DBHko 1. mailako gela guztien kopurua	
Lehen Hezkuntzako 5. mailako edo DBHko 1. mailako ikasle guztien kopurua	

Programan parte hartuko luketen Lehen Hezkuntzako 5. mailako edo DBHko 1. mailako ikasleen kopurua	
Programan parte hartuko luketen Lehen Hezkuntzako 5. mailako edo DBHko 1. mailako ikasle etorkinen portzentajea	
Programan parte hartuko luketen Lehen Hezkuntzako 5. mailako edo DBHko 1. mailako gutxiengo etnikoetako ikasleen portzentajea	
Gizartearen edo hezkuntzaren alorreko desabantailarik izan gabe programan parte hartuko luketen Lehen Hezkuntzako 5. mailako edo DBHko 1. mailako ikasleen kopurua	

Lehen Hezkuntzako 6. mailako edo DBHko 2. mailako gela guztien kopurua	
Lehen Hezkuntzako 6. mailako edo DBHko 2. mailako ikasle guztien kopurua	

Programan parte hartuko luketen Lehen Hezkuntzako 6. mailako edo DBHko 2. mailako ikasleen kopurua	
Programan parte hartuko luketen Lehen Hezkuntzako 6. mailako edo DBHko 2. mailako ikasle etorkinen portzentajea	
Programan parte hartuko luketen Lehen Hezkuntzako 6. mailako edo DBHko 2. mailako gutxiengo etnikoetako ikasleen portzentajea	
Gizartearen edo hezkuntzaren alorreko desabantailarik izan gabe programan parte hartuko luketen Lehen Hezkuntzako 6. mailako edo DBHko 2. mailako ikasleen kopurua	

Programan parte hartzen duten ikasle bekadunen portzentajea	
---	--

Goian aipatutako ikastetxearen zuzendariak eskatzen ditu \_\_\_\_\_ monitore eta/edo irakasleen \_\_\_\_\_ ordu, PROA laguntza-proiektua 2010-2011 ikasturtean dinamizatzeko, aurkeztutako datu orokorretan aurreikusitakoa aintzat hartuta.

.....(e)n, 2010eko .....(a)ren ....(e)(a)n

Ikastetxearen zuzendariaren sinadura eta zigilua



## A – 2: 2. ERANSKINA

## ESKOLA-LAGUNTZA PROGRAMARAKO TXANTILOIA

Ikastetxea:	Udalerrria:	Lurraldea:
Koordinatzailea:	Eskatzen diren taldeen kopurua:	
Laguntza gauzatzeko asteko egunak eta orduak:		
Laguntza-saioen edukiaren eta metodologiaren deskribapen laburra (zertarako erabiliko diren eta nola jardungo duten):		
Koordinazioa gauzatzeko asteko egunak eta orduak:		
Koordinazioan parte hartuko duten pertsonak eta haren edukiaren deskribapen laburra:		
Familiekiko harremanak:		
Udalak edo beste erakunde batzuek antolatutako antzeko programekin zerikusia:		
Ikastetxeak aintzat hartuko dituen ebaluazio-adierazleak:		
Iruzkinak:		

.....(e)n, 2010eko .....(a)ren ....(e)(a)n

Ikastetxearen zuzendariaren sinadura eta zigilua



## A – 2: 3. ERANSKINA

### ESKOLA-LAGUNTZA PROGRAMA

(Zonaldeko Berritzegunera bidali behar da urriaren 30a baino lehen)

Ikastetxea: ..... Kodea: .....

Udalerrria: ..... Lurraldea: .....

#### DATU OROKORRAK

DBHko 1. mailako edo Lehen Hezkuntzako 5. mailako gelen kopurua	
DBHko 1. mailako edo Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleen kopurua	
DBHko 2. mailako edo Lehen Hezkuntzako 6. mailako gelen kopurua	
DBHko 2. mailako edo Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen kopurua	
Programaren onuradunak diren DBHko 1. mailako edo Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleen kopurua	
Gizarte- edo hezkuntza-desabantailarik izan gabe programan parte hartzen duten DBHko 1. mailako edo Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleen kopurua	
Programaren onuradunak diren DBHko 2. mailako edo Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen kopurua	
Gizarte- edo hezkuntza-desabantailarik izan gabe programan parte hartzen duten DBHko 2. mailako edo Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen kopurua	

#### PROGRAMA GARATZEKO ARDURA DUTEN IRAKASLEAK

Izen-abizenak	Tutorea (bai-ez)	Ikastetxean behin betiko lanpostua (bai-ez)	Programari ematen dizkion orduak

#### PROGRAMA GARATZEKO ARDURA DUTEN MONITOREAK

Izen-abizenak	Programari ematen dizkion orduak



## PROGRAMAN PARTE HARTZEN DUTEN IKASLEAK

Taldea ____ (talde bakoitzeko errepikatu)				
Izen-abizenak	Jaioturtea	Maila eta taldea	Familiak konpromiso formala hartu du	Oharrak
1.-				
2.-				
3.-				
4.-				
5.-				
6.-				
7.-				
8.-				
9.-				
10.-				
11.-				
12.-				
Taldeko ikasle guztien kopurua, eskola-zailtasunik ez dutenak barne hartuta				

## KANPOKO LAGUNTZAILEAK: GURASO-ELKARTEA, UDALA, GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK, ETAB.

Erakundea	Inplikaturako pertsona	Programari ematen dizkion orduak	Zer jardueratan parte hartzen du?

.....(e)n, 2010eko .....(a)ren ....(e)(a)n

Ikastetxearen zuzendariaren sinadura eta zigilua